

KULTURA- ETA ARTE-MUGIMENDUAK/ MOVIMIENTOS CULTURALES Y ARTÍSTICOS

Nahitaezkozat jotzen da ikasleak terminologia teknikoa egoki erabiltzea, planteatutako galderen erantzunetan alderdi esanguratsuenak argi eta garbi adierazi ahal izan ditzan. Azterketako notaren 1 PUNTU honako alderdi hauei dagokie: koherentzia, kohesioa, gramatika-, lexiko- eta ortografia-zuzentasuna eta aurkezpena.

1. GALDERA. (5 puntu)

Irizpideak:

- a) Irudia (izenburua, egilea, urtea) eta dagokion mugimendua edo testuingurua identifikatzen ditu. (1 puntu)
- b) Irudia dagokion mugimenduaren edo testuinguruaren oinarritzko kontzeptuekin erlazionatzen du. (1 puntu)
- c) Irudiaren berezko ezaugarriak azaltzen ditu (formalak, estilistikoak, teknikoak...). (1 puntu)
- d) Obraren alderdi esanguratsu, formal, tekniko eta adierazkorrenak identifikatzen ditu eta egilearen arte-jardueraren ezaugarrieekin lotzen ditu. (1 puntu)
- e) Emandako artelanaren gaia eta funtzioa ezagutzen eta azaltzen ditu. (1 puntu)

2. GALDERA. (2 puntu)

Irizpideak:

- a) Hautatutako gaiaren oinarritzko kontzeptuak azaltzen ditu (teorikoak, formalak, estilistikoak, teknikoak...) eta obraren aurrekariak eta ondorengo eraginak azaltzen ditu. (1 puntu)
- b) Hautatutako gaia bere testuinguru ideologiko, kultural, soziopolitiko eta ekonomikoan kokatzen du. (1 puntu).



3. GALDERA. (2 puntu)

Irizpideak:

- a) Irudiaren arte-mugimendua eta haren testuinguru historikoa eta kulturala ezagutzen eta azaltzen ditu. (1 puntu)
- b) Artelana aztertzen eta iruzkintzen du, haren alderdi formalak eta teknikoak azpimarratuz, eta artelanaren gaia eta funtzioa ezagutzen eta azaltzen ditu. (1 puntu)